



Atzo ezagutu genituen, euskal preso politikoek eskubideen alde lan egiten duten militanteen aurka, fiskalak egin duen eskaera: 600 urtetik gorako kartzela zigorra, 48 pertsonentzat. Pertsona hauek, euskal presoek alde lan egiten duten eragile ezberdinen aurkako polizia operazioetan atxilotu zituzten: Herrira, Abokatuak, Jaki Hadi, Bitartekariak... Horien artean Barakaldoko herritarra den, Javier Carballido daukagu. Fiskalak 17 urteko kartzela zigorra eskatu du barakaldarraren aurka. Atzo politika, sozial, kultur... esparruetako pertsona ezberdinek agerraldia egin zuten Aieteko palazioan. Bertan eskaera hauek salatu zituzten eta estatuak errepresioaren bidearen alde jarraitzen duela salatu zuten. Ala ere, bakegintza eta soluzio proaktiboekin konprometituak jarraitzeko konpromisoa berretsi dute eta bide honetan gizarte zibila protagonista izan behar dela uste dute, “sigla eta ezberdintasun ideologikoen gainetik”.

### **Manifestua:**

2013ko udazkenean Herrira mugimenduaren aurkako polizia-operazioa jarri zen martxan. Ondoren, atxiloteta gehiago etorri zen: EPPK-ko presoek defentsaz arduratzen ziren abokatuak, kolektibo horren bitartekariak, Etxerat senideen elkarteko kideak eta Jaiki Hadi osasungintzako elkarteko kideak: orotara 48 lagun. Horietako batzuk —hamaika hain zuzen ere— behin-behinean espetxeratuak izan ziren.

Orain gutxi auziko fiskalaren eta akusazio partikularren idazkiak eta zigor-eskaerak ezagutu ditugu: 600 urtetik gorako espetxe zigorra eskaera guztiak batuta.

Kezka handiz jaso ditugu eskaerok eta gertaeren larritasunaz ohartarazi nahi dugu. Izan ere, arduratu egiten gaitu gisa honetako makrosumarioek Euskal Herriko bizitza sozial eta politikoa izan dezaketean eraginak, are gehiago egungo testuinguruan. Gainera, pertsona hauen bizitzak

bidegabekeri judizial eta polizial baten mende diraute oraindik 2017ko udazkenean. Atsekabetu egiten gaitu arazo politikoaren aurrean espainiar Estatuak errepresioaren hautua egitea soil-soilik, soluzio politikoak bazter utzita. Demokrazia eskaerei salbuespeneko legedi eta neurrien bidez erantzuten die, eta horren lekuko izaten ari gara azken asteotan.

Herritarrek, bere aniztasunetik, garbi adierazten dute arazoei aurre egiteko parametro demokratiko eta baketsuen bidetik jarraitzeko nahia, baina oraindik ere tamaina honetako gehiegikeri antidemokratikoak pairatzen ditugu.

“Terrorismo” delitua egozten zaie pertsona hauei 2012, 2013 eta 2014 urteetako jarduerengatik —ETAk 2011ko urrian jardun armatua bukatua zuenean— eta zigor eskaera larriak jaso dituzte. Guk diogu lan publiko eta transbertsala garatu dutela giza eskubideen alde, konponbidearen eta bakearen alde, eta horixe bera esan dezakete jendarteko askotariko eragile eta pertsonak. Bakearen alde lanean aritzea ezin da inolaz ere delitua izan. Aitzitik, lan hori beharrezkoa da eta euskal jendartearen babes zabala dauka; baita nazioarteko erakundeen bermea ere.

Asko izan dira bakegintzan emaniko urratsak azken urteetan: Apirilaren 8an, “Bakearen artisauek” sustaturik, ETA-ren armagabetzea gauzatu zen; uztailean EPPK-k bere eztabaidaren ondorioen berri eman zuen, besteak beste ontzat joz “legearen bidea erabiltzea haien askatasuna eskuratzeko”; urriaren 8an, emakumeen egia aitortzeko izandako “nik sinisten dizut” ekimena; biktima ezberdinen aitortza eta hurbilpenean urratsak eman dira; eragile sozial, sindikal, politiko eta instituzionalak konponbidearen aldeko agendak partekatzen ari dira. Herri honen nahia, bakean eta demokrazian sakontzea da.

Sinesgaitza da panorama honetan preso eta iheslarien egoerak hobera ez egitea. Soluzio politikoaren bidean kartzelak eta erbesteak husteko garaiari heldu behar diogu guztiok. Premiaz exijitu behar dugu presoek eta haien senide zein inguru hurbilaren giza eskubideenganako errespetua, egun aplikatzen den salbuespeneko espetxe politikak nabarmen urratzen dituelako. Eta ez dugu nahi eskubide urraketa gehiagorik, ez presoentzat ez inorentzat. Nahikoa sufritu dugulako herri honetan. Herri honek etorkizun hobea nahi eta behar duelako.

Pertsona guztien eskubide guztiak errespetatuak izan daitezela nahi duen jendarte batek ezin ditu horrelako urraketak onartu. Osasuna artatzea, defentsa juridiko egokia jasotzea, jardun politikorako aukera izatea eta harreman afektibo eta sozialak garatu ahal izatea ezinbesteko eskubideak dira. Eta horrelako auzien bitartez larriki kolpatuak izan dira.

Horrelako injustiziek adierazten digute bakegintza eta soluzio proaktiboekin konprometituak jarraitu behar dugula. Uste dugu jendarte zibilak behar duela izan protagonista, sigla eta ezberdintasun ideologikoen gainetik. Guk aktiboki helduko diogu ahalik eta herritar zein talde gehienekin lan egiteko erabakiari, eta auzi honetako lagun guztiak ere horretan arituko dira.

Euskal jendarteari, bereziki eragile instituzional, politiko, sindikal eta sozialei, agenda partekatu baten baitan lanean jarraitzeko gonbidapena luzatu nahi diegu. Eta nahi dugu herritarrei bitartekoak eskaintzea bide horretara batu daitezela, bai bere ahalegin propioetik zein beren eragin esparruetatik, besteak beste, horrelako bidegabekeriekin amaitzeko. Guk —48 pertsona hauek barne— honako konpromiso aktiboa azaltzen dugu, euskal jendartearekin batera garatu asmoz: Giza eskubide guztiak errespetatzea, jarduera demokratikoetan sakontzea eta bake

integral bat.

### **Manifestuaren sinatzailea**

- Garbiñe Aranburu (LAB-eko idazkari nagusia).
- Ekhiñe Atorrasagasti (Hamaika TB-ko kazetaria). Testua euskaraz irakurriko du.
- Olatz Barrenetxea ( Giza eskubideen urraketen biktimen psikologoa).
- Luis Galdos (neurologoa).
- Martin Garitano (kazetaria eta Gipuzkoako Ahaldu Nagusi ohia).
- \*Bego Huarte ( aktibista soziala).
- \* Expe Iriarte (Foro Sozialeko kidea).
- Txiki Muñoz (ELA-ko idazkari nagusia).
- Haizea Nuñez ( Bilgune Feministako kidea).
- \* Fernando Rey (Nafarroako giza eskubideen aktibista eta oinarritzko kristaua).
- \* Paul Rios ( Lokarriko koordinatzaile ohia).
- Jesus Valencia ( internacionalista, oinarritzko kristaua).
- Begoña Zabala ( abokatua eta mugimendu feministako kidea). Testua gazteleraz irakurriko du.

\* Dutenak bat egin dute baina ez dute agerraldira bertoratzerik izan.